

## Lehen hezkuntza. 1

## SAIO KOPURUA: Aurretik 1 / Ekoetxea 1 / Ondoren 1



## IKASGAIA

Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

## LANDUKO DEN GAI EKOSOZIALA

- Ekodependentzia
- Krisi zibilizatorioa

## EUSKO JAURLARITZAREN INGURUMEN-POLITIKAK

- Ura
- Ohitura jasangarriak



## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Uraren erabilgarritasuna, kudeaketa eta saneamendua guztiontzat berdina ez den mundu honetan, ikasleen zereginetako bat da hau baloratzea, neurritz eta egoki erabiltzea. Arazo hauei aurre egiteko gure egunerokotasuneko ohiturak zalantzan jarri beharko ditugu eta gure bizimoduaren hainbat atal birpentsatu beharko ditugu.

## Abiapuntua

*Gaizki banatutako ondasun hau baloratzeko, jolasaren bitartez tamaina ezberdineko tantak garraiatu beharko dituzte errealtate batetik bestera, ura ez kutsatzeko desegoki dauden objektuak atera beharko dituzte leku ezberdinetatik eta errotak aprobetxatzen ez dituen tantak jasoz ura alferrik ez galtzen ikasiko dute.*

**AZKEN PRODUKTUA.** Aurpegian marraztutako malkoak eta ur tanta pertsonalizatu bat (eskulana) bakoitzak bere izenarekin, "Ez nazazu alferrik galdu" mezua gogorarazteko. Komunikaziorako irakasleari eskulanean argazkiak bidaltzeko eskatuko zaio.




## HELBURU KOMPETENZIALAK

- Uraren arazo global eta lokalen inguruan ikasleak kontzientziatzea.
- Urak sortzen dituen munduko errealtate ezberdinak ezagutzea, bereiztea eta beraiek dutena baloratzea.
- Uraren ziklo naturala eta artifiziala ondo bereiztea eta bakoitzaren zatiak ezagutzea.
- Uraren erabileraren ondorioz sortutako hainbat arazo ezagutzea eta irtenbidea jartzea.
- Errota baten uraren erabilera jasangarria ezagutzea.
- Gure herrian nahiz etxean ura alferrik galtzen diren puntuak zein diren detektatzea
- Gure urarekiko ohiturak zein diren komunikatzea eta nola hobetu ditzakegun pentsatzea
- Ikasleak uraren arazoei buruz sentsibilizatzea eta horiek ekintzara eramatea, eguneroko ekintzen konpromiso indibidualaren bidez.
- Lankidetzeta eta talde-lana sustatzea.
- Etxean gaiaren inguruan hitz egitea eskulanean bitartez.

## Curriculumaren zehaztapenak

## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	GINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 3, 1, 2, 1, 2, 4, 5, 6 1, 4, 1, 4, 1, 1, 2	<b>5. Natura-, gizarte- eta kultura- ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura- ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.</b>	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura ingurunekeko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak ezagutzea, ikerketa-metodologiaren bidez, eta tresna eta prozesu egokiak modu antolatuan erabiltzea. 5.2. Ingurune natural, sozial eta kultural hurbileko elementuen arteko konexio erraz eta zuzenak ezagutzea, modu Gidatuan. 5.3. Irudi eta adibide zehatzen bidez, ideia zientifikoak aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin erlazionatzea, bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela aitortuz. 5.4. Ondare naturala eta kulturala errespetatzeko eta gozatzeko jarrerak erakustea, eta zaintzea eta kontserbatzea beharrezkoa den ondasun komun gisa aitortzea.	<b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b> <b>1. Egungo munduaren erronkak</b> – Bizitza Lurrean. Ura bizitzaren elementu komun eta oinarritzko gisa. Fenomeno atmosferikoak eta horiek ziklo biologikoetan eta eguneroko bizitzan duten eragina. Datu atmosferikoak behatzea eta erregistratzea. 
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 2, 3, 5, 1, 2, 3, 1, 2, 5, 6 2, 3, 5 4, 1, 2, 3, 4, 1, 2, 3, 1	<b>6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarri, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</b>	6.1. Bizi-ohitura jasangarriak erakustea, planetako bizitza mota guztiak errespetatzeko, zaintzeko eta babesteko beharraz jabetuta. 6.2. Eremu hurbileko elementu eta baliabideekin lotuta, esplizituki eta adibideen bidez identifikatzea pertsonen bizitzak beren ekintzeekin duen erlazioa. 6.3. Ingurune hurbileko arazoak banaka eta taldean antzematea eta soluzio posible batzuk proposatzea.	<b>A. Kultura zientifikoa</b> <b>2. Bizitza gure planetan</b> – Izaki bizidunak eta haiek bizi diren ingurunea zaintzeko eta errespetatzeko ohiturak. <b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b> <b>4. Kontzientzia ekosoziala</b> – Erantzukizun ekosoziala. Ondasun komunak kontserbatzeko, hobetzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko ekintzak. Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa. – Bizi-ohitura jasangarriak. Uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ONARRIZKO JAKINTZAK
HKK	1, 2, 3,	7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.	7.1. Natura-, gizarte- eta kultura inguruneke hurbileko gertaerak kronologikoki antolatzea, neurtzeko eta denboran kokatzeko oinarrizko nozioak erabiliz, historiako pertsona garrantzitsuekiko, iraganeko bizimoduekiko eta horien bilakaeraren garrantziarekiko jakin-mina erakutsita.	<b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b> <b>4. Kontzientzia ekosoziala</b> – Gure ingurunea ezagutzea. Paisaia naturalak eta paisaia gizatiartuak, eta horien elementuak. Ingurunearen gaineko giza ekintza eta horren ondorioak.
STEM	1,2,			
KD	4,			
KPSII	1, 4, 5,			
HK	4,			
EK	1, 3, 2, 1			



## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- \* 1. Giza ekodependentzia barneratzea. Bizisarearen parte garela ohartzea.

- \* 2. Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismoa ekentzismora igarotzea.

- \* 9. Lurreko ziklo biogeokimiko handiak, zein neurritan aldatzen ari diren eta horiek lehengoratzeko modu batzuk ezagutzea.



## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- \* Azaldu nola izaki bizidunek lurzorua osatzen duten, ura garbitzen duten eta airea garbitzen duten. Horrek gure biziraupenerako zer suposatzen duen jakitea.



- \* Natura gizakiek kontrola dezaketela edo kontrolatu behar dutela dioen ideiarekin aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.

- \* Uraren zikloa azaltzea.
- \* Uraren zikloaren gaineko inpaktuak identifikatzea.
- \* Inpaktuek uraren zikloan eragiten dituzten kausak identifikatzea.
- \* Produktu toxikorik ez erabiltzea.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- \* Ekodemokotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.
- \* Funtzio ekosistemiko nagusiak: ongarritzea, ura eta airea araztea, polinizazioa, klima erregulatzea, etab.
- \* Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).
- \* Baliabide energetikoen eta materialek eta ekosistemek eta klimak gizateriaren historian izan duten eragina.
- \* Biosfera gizartea eta ekonomia baino askoz ere handiagoa da, eta ulertzen ditu.

- \* Lurraren eskubideak. Lurra subjektu gisa, ez menderatu beharreko objektu gisa.
- \* Natura zaintzearen garrantzia.

- \* Eraldatutako planetaren ziklo biogeokimiko nagusiak: urarena eta karbonoarena.
- \* Uraren zikloaren aldaketaren arrazoi nagusiak: kutsadura, ibaien ibilguten alterazioa, gehiegizko erauzketa (batez ere nekazaritza), klima-aldaketa.
- \* Uraren zikloaren alterazioaren erantzukizunak, klasearen, jatorriaren eta generoaren arabera bereizita.
- \* Uraren zikloaren aldaketaren ondorioak: baliabiderik eza.
- \* Uraren zikloaren distortsioaren inpaktuak, klasearen, lurraldearen eta generoaren arabera bereizita.
- \* Uraren zikloa berrerekatzeko banakako neurriak: uraren erabilera eta kutsadura.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.

## Metodologia



## ESTRATEGIA

Araoetan  
oinarritutako  
ikaskuntza

Gogoetan  
oinarritutako  
ikaskuntza

Gamifikazioa

ESTRATEGIA  
EKOSOZIALAK

Ikuspegi sozioafektiboa  
Ekintzarako ikaskuntza

Ikaskuntza aktiboa

Ikuspegi holistiko  
eta kritikoa



## TEKNIKAK

OHIKOAK:

Tailerrak

Ikus-entzunezkoak

Txoko edo  
ingurunezkoak

Entzute kolektiboa

Azalpenak talde  
handietan

